

# BERRIGARA


48. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, urtarrilak 17



**Justo Garaterekin  
Argentinan berriketan**



**San Anton  
asteburua  
jaigiroan**



**Kartzela  
zaharra  
inauguratzear**




**Jon Lazkano  
Patagoniatik  
bueltan**

**Guipuzconoan Euskara Aurretik**

BANCO

**Guipuzcoano**



# Urcelay

HARATEGIA


## GEURE BASERRIAN HAZITAKO TXAHALAK

Etxean egindako txorizo,  
saltxitxa eta odolosteak

Ibargarai, tfnoa: 76 37 77/ 76 00 45  
BERGARA

# Biltoki

**GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!**

 **xey**

Sukalde eta bainugelarako mobleria  
Diselnuia eta goimallako kalitatea  
5 urteko garantia

San Pedro z/g  
Tfnoa: 76 34 00

**PHILIPS**



Teknologia eta diselnua  
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-  
LINEekipoak  
K-200 telebista berriak


Barrenkale, 6  
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Estiloko altzariak eta gazteentzakoak  
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,  
tapizak,...  
apaingarriak

San Martin 2  
Tfnoa: 76 43 51

## BERGARA BOLTSAK



- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

**Laguntzailea:** Bergarako Udala

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki Arieteleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Miguel Angel Elkoroberezibar, Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Josune Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa Bikuña

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



**San Anton XII. Krossa** jokatuko da igandean auzo horretako Jai Batzordeak prestatutako egitarauaren barne. Aurten ere herriko korrikalari onenak antolatzaileek prestatutako zirkuituan zehar arituko zaizkigu. Kirola egiteko aukera paregabea. Igandean, 12etan.

**LARUNBATA 18**

• **Saskibaloia:**

-Bergara-Aldapeta (kade-te mutilak), 19.00etan.  
-Bergara-Zarautz (senior gizonak), 17.15etan.

• **Eskubaloia:**

-Bergara-Hernani (kade-te mutilak), 19.00etan.  
-Bergara-Donibane (senior gizonak), 20.00etan

• **Jaiak San Antonen:**

-Arratsaldeko 4retan Tute eta Mus Txapeketa Zubiberrin.  
-Herri afaria gaueko 9etan.

• **Pelota partiduak:**

-Telletxea-Salbidea/Zabala-Andueza IV, Arteaga-Aldazabal II/ Etxaniz-Maiz II eta Gabilondo-Alberdi/Loiarte-Garaita, Pelotalekuan 16.30etan.

**IGANDEA 12**

• **Eskubaloia:**

-Bergara-Oarso (gazte mutilak), 10.30etan.

• **Saskibaloia:**

-Bergara-Don Bosco (kade-te neskak, lehen maila), 12.00etan.  
-Bergara-Talde Berri (senior emakumeak), 12.15etan.

**FARMAZIAK**



- 19 Puy/Corcuera (Arrasaten gauez)
- 20 Estella/Amezua
- 21 Estella/Ruiz
- 22 Mozos/Morales
- 23 Camacho/Azkoaga
- 24 Puy/Corcuera
- 25 Guallar/Irizar
- 26 Guallar/Amezua

**ZINEA**



*Grito de piedra*

- **OSTIRALA:** 22.30etan.
- **LARUNBATA:** 15.00, 19.30 eta 22.15etan.

*El Rey Pasmado*

- **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

*Rocketeer*

- **IGANDEA:** 11.30.

*Cómete una taza de té*

- **OSTEGUNA:** 7.30.

**OGIA**



Ogizun

**MAKAILO**

Makillau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15

**K**abia

*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

## Beheko Taberna

Menestra eta konejota dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## FERNANDEZ



Oihal puskak  
Oihalak

San Antonio 3  
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2  
Tfnoa: 76 53 22

## SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irlzar 1, Tfnoa: 76 42 41

## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

## Kaleko kartelak gure bizitasunaren kolore

Antonio Urzelairi erantzunez...

Ni ere zu bezala pasaizu batekin hasiko naiz eta nire inspirazioa ere Frantzia aldetik dator.

Gure belaunaldiak intentsitate haundiarekin jarraitu zuen Parisko 68ko Maiatza, baita geroago Burgosko epaiketa ere. Baina urteak pasatu ziren eta Parisera joan nintzen oportetan, nire lehen bisita Barrio Latinora izan zen, emozioz beterik bilatu nituen bere kaleak, bertako tabernak eta liburu dendak, nire gaztaroko aztarnak bilatu nahiaz. Baina ai!, konturatu nintzen harriduraz mundu hura zeharo hilda zegoela, "mobida" ahaztuta zegoela, kale haiek arruntak zirela, piska bat estuagoak, besterik ez, eta kolpe batez konturatu nintzen nire gaztaroa hilda zegoela, eta baita Sartre, Simone de Beauvoir, Bendit... dena aldatuta zegoen, guztiz zahartuta. Ez zegoen kartelik, ez pintadarik, ez gazterik, ez maitasunik... Dena zen normala, arrunta, aspergarria.

Non zeuden orduko lemak: kultura herrira eramatea, artea kalera ateratzea. Ze pena!

Zuk galdetzen duzu, zeure lanean: "zuk uste duzu, Kristobal,

Bergarako bizilagunak ados dagozela konportamentu eta jokaerak horrela jarrai dezaten?". Nire erantzuna hauxe da: niri ere ez zait ondo iruditzen, txisa kalean egitea, baina ez nago ados zurekin, pintada, marrazki eta kartelei buruz esaten duzunarekin. Nire ustez lan hauek kultura dira, eta batzuk oso ondo eginak gainera, penagarria izaten da jendeak apurtzea, orduan bai piska bat zatar geratzen dira.

Edozein modutan gure ideiak adierazteko askatasuna behar dugu, gehien bat, bide hori hartzen duten taldeak beste leku batzuetan marginatuak direnean, adibidez: gazteak edo ezker abertzalea.

Gainera beti uste izan dut, arazo honetan hipokresia haundia dagoela, ze beste partiduak ere baten baino gehiagotan ipini dituzte euren kartelak (adibidez 14 D greba izan zenean, edo Ertzaintzaren alde...)

Azken finean "mobidak" adierazten du gure herriaren gaztetasuna, bizinahia eta aurrera jarraitzeko gazte batzuen kemena. Ez dezagun arnasa hori itto.

Hain tristea da herri bat zahartzea eta bere kolore biziak galtzea!!

Mikel Ugalde

Tiira ba!



### □ Gurasoak

Bergarako Udaleko *Ongizate Sailak* O.H.O.ko eskolaumeen gurasoei (batez ere goi ziklokoei) zuzenduriko "Gurasoentzako prestakuntza ikastaroa" antolatu du. Ikastaroa datorren asteazkenean, hilak 22, hasita, hamabostean behin asteazkenetan 18.30etatik 20etara izango da Kultur Etxean eta interesatuek udaletxean edota bere seme-alaben bitartez eskoletan eman dezakete izena.

### □ Elgoibarrera

Musika Eskolako *Orkestra Sinfonikoak* eta Bergarako *Orfeoia* larunbatean, hilak 18, Elgoibarko San Bartolome Elizan eskeiniko duten kontzertuan *La Mision* eta *Urdiraz* piezak interpretatuko dituzte.

## Kartzela Zaharraren berrikuntza lanak amaitu dira

1.990eko otsailetik egun erdiz Kartzela Zaharreko berrikuntza lanetan jardun duten *Deba Garaiko Udal Elkarte*ko *Lanbide Eskolako* 40 ikasle inguruk pasa den abenduko 20an amaitutzat eman zuten bere lana. Tarte horretan; *Anselmo Iñurrategi* arkitekto oñatiarrak egindako proiektuaren arabera eta, *Sabino Martiartu* Lantegi Eskolako zuzendariaren kontrolpean, ikasleek erreabilitazio osoa burutu dute, izan ere, eskolako igeltsero, arotz, elektrizista, iturkin eta lorazainek ere egin dute lan guztia.

### 18 milioi

Bergarako Udalak berrikuntza egin ahal izateko beharrezkoak ziren materialak besterik ez ditu jarri, lan hauen au-



rrekontua 18 milioi pezeteta ingurukoa izan delarik. Ikasleen soldata berriz, INEM (% 80a) eta Udalaren (% 20a) artean ordaindu da.

Oraindik kartzelaren erabilera zehaztu ez den arren, badirudi margolarien kokalekua izango dela. Inaugurazioa datorren ostiralean, hilak 24,

izango da, eguerdian, Udaletxeko Pleno Aretoan. Obrak hasi aurretiko kartzelaren egoeraren filminak ere eskeiniko dira, ikasle hauek egindako lan bikainaren prozesua ezagutzeko. Barzelonako Modelorekin batera, Estatuko kartzela zelular lehenetarikoa dugu Bergarakoa.

## Harmarriari eraso

Pasa den ostiralerako deitutako presazko Plenoan, *Bergarako Udalak salatu* egin zuen Errege bezperan udaletxean dagoen herriko harmarriari pinturaz zikindi izana. Guztiek eraso salatzearekin bat etorri baziren ere, kondenaren bigarren parrafoa polemikoa suertatu zen HBren ustez "gogorregia" bait zen. Azkenik, HBren abstentzioa eta gainontzeko alderdien aldeko botuekin, testuan, salaketaz gain, "erasotzailea, Bergarako seme bada, bere harmarriarenganako azaltzen duen mesprezuagatik gure herrian bizitzea ez duela merezi" jasotzen da.



# Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

# ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnoa: 76 29 65

BERGARA

### □ Epaiketa

Datorren asteartean, hilak 21, Madrilgo Audientzia Nazionalean *Maria Eugenia Grazia, Jose Luis Loidi, Pedro Belastegi, Maite Guridi* eta *Bittore Aierbe* Bergarako preso politikoei egingo zaien epaiketara joan nahi dutenentzat autobusa antolatu du *Amnistiaren aldeko Batzordeak*. Irteera, asteartean, goizeko 3retan izango da Frontoitik eta izena Pol-Pol, Txokolategia edota Arranon eman dezakezue.

### □ Zozketa

*Egunkariak* zozketa-tutako *Renault Clio* kotxea 187.570 zenbakiaren jabearentzat izan da. Hilaren 31n saritutako boleto hori agertuko ez balitz, 570.589 zenbakiak jasoko luke kotxea. Boleto saritua izan ezker, 469022 telefono zenbakira deitu dezakezue.



## San Anton jaiak

Astebukaera honetan urteko lehen auzo-jaiak izango ditugu *San Antonen*. Bertako *Jai Batzordeak* egitarau interesgarria prestatu du aurten goan ere: ostiralean, goizeko 10etan emango zaie hasiera jaiei txapligu jaurtiketarekin; ondoren San Anton ermitara ohizko igoera izango da eta 11etan Meza Nagusia eta Opari bedeinkapena, meza ondoren salda, lukainka eta ardoa banatuko direla bildutakoan artean.

Larunbatean goizeko 12etan txapligu jaurtike-

ta, txikiteoa ordu batetan eta arratsaldeko 4retan Tute eta Mus Txapelketa Zubiberri sagardotegian. Gaueko 9etan berriz, herri afaria izango da Zubiberrin bertan.

Igandean, txapliguak eta kanpai jotzea goizeko 8etan, auzoko ermandearen bilera 9 t'erdietan, ermitara igoera 10 t'erdietan, Meza nagusia, Krossa 12etan, herri kirolak ordu erdi berandago eta jokuak ordu batetan, txikiteoa ondoren eta, jaiei amaiera emateko, txapligu eta trakak erreko dira.

### □ Ikastaroak

Bergarako UNEDeko *Zuzenbide Departamentuak* zergen kitapen edo likidazio kontutan trebatzeko eta, merkataritzako jectioari buruzko ikastaroak antolatu ditu otsailetik apirilerara. Bi ikastaro hauetarako matrikula epea otsailaren 12ra arte izango da zabalik eta ikasle kopurua mugatua izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, 761342-43 telefono zenbakietara jo dezakezue.

### □ Eskurtsioa

Jubilatuek astelehenean, hilak 20, Donostiako tanborradara joateko eskurtsioa antolatu dute. Autobusa goizeko 9 t'erdietan aterako da Bergaratik eta bazkaria Errenteriko Egoitzan izango da, 8etan izango den nagusien tanborradaren ondoren itzuliko direla. Irteeraren prezioa 1.500 pta.koa da.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**ANTIA** HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**BRIKOLAIA**  
**AUTOMOZIOA**

**Turismoak, kamioiak, etab.**

Bolu, Tfnoa: 76 44 04 BERGARA

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

**MINER** Ardo onak,  
**ardoa** jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA



## Kartelak zifretan

Bergarako Udalak ohar batean jakinerazi duenez, Legazpiko *Garbibile* enpresak *fatxaden garbiketaren* lehen fasea burutuz gero, garbiketa horren aurrekontua 1.564.574 pezetakoa izan da eta guztia Udalaren aurrekontuaren diruarekin ordaindu izan da, hau da, diru publikoaren kontura.

Horrez aparte, Udalak eman dizkigun datuen arabera, pasa den urteko azken hiru hilabetetan 679 kartel eta 34 pankarta kendu izan dira herriko kaleetan. 679 kartel ho-

rietatik 186 kolarekin ipinita zeuden (% 27,4) eta gainontzeko 493 kartelak zeloaz jarri zituzten kolektibo ezberdinek. Kolarekin jarritakoei dago kienez bestalde, 101 komertzialak genituen (% 54,3) eta gainontzeko 85ak (% 45,7) talde politiko ezberdinek jarritakoak omen ziren. Era berean, Bergarako Udalak diru publikoaren kontura egingo den *fatxaden garbiketaren* bigarren faseari aurre egiteko aurrekontua eskatu duela iragarri du.

## Txinpartak

✓ Bergarako *Eguzkik* kotxe karabana antolatu du "*Energi alternatiboak daudelako*" lemapean igandean, hilak 19, *Lemoizeko* zentral nuklearraren burutuko den martxara joateko. Irteera goizeko 9etan izango da.

✓ *Pol-Polek* *ski irteera* antolatu du *Formigalera* urtarrilaren 25 eta 26rako. Autobusa goizeko 5etan aterako da Frontoitik 25ean eta prezioa 9.900 pta.koa da. Interesatuak Pol-Polen edota 764851 telefonoan eman dezakete izena.

✓ *Udaletxean* jaso ditzakezue *Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak* aurten kaleratu dituen egutegiak.

✓ *Udal Kirol Zerbitzuak* urtarriletik ekainera bitartean emango diren hainbat igeri eta tenis ikastaro antolatu ditu. Igerikoan bazkideek bakarrik parte hartu ahal izango dute; 18 urtetik beherakoek 4.500 pta. oradaindu beharko dituzte eta hortik gorakoek berriz, 5.300 pta. Tenisekoan berriz, bazkideentzat matrikula 1.000 pta.koa izango da eta 1.500 pta.koa gainontzekoentzat.

✓ *Antzuolako Idolaz* taldeak Antzuolan jaio edota bertan bizi direnentzat *bertso paper lehiaketa* antolatu du. Hiru talde bereiztuko dira; 14 urte artekoak (gaia mendia eta lau bertso gutxienez), 15-17 urte bitartekoak (sei bertso gai librean) eta 18 urtetik gorakoak (zortzi bertso gai librean). Lanak hilaren 31ra arte jasoko dira Euskara Zerbitzuan edota liburutegian.

## LITXAR

### Kruasantegia


- Gosariak • Askariak
  - Hanburgesak / Sanwichak / Plater konbinatuak / Pizak
- Fraiskozuri 4 Tfnoa: 76 55 45

## Pepelu

### Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

# AE



ARRASATE

## ELKORO ANTENAK

✓ TB Satellite bidez

✓ Telebanaketa

Tfnoa: 79 18 86

# San Adrian

Elosuko feria kalera jaitsi (1)


**E**gia esan ez dut sekula liburu zaharretan irakurri San Adrian izeneko ermitarik Elosun izan zitekeenik. Hortik, nere zalantzak. Baina, elosuar batzuek aitortzen dutenez baten, eta berak ezagutu omen zituzten 30 edo 40 zentimetro rainoko ermitaren hormak, San Adrian izeneko, eta gaurko kantinenaren inguruetan, Letanietako Gurutzearen ondoan omen zegola.

Probintziako Elkarte Orokorrak toki urrutikotetan eta bakartietan ferriarik eta erromeriarik ez ospatzeko agindu zuela, esaten genuen joan den asteen. Bergarako Udaletxeak, 1.727 garren urteko maiatzean, Elosu-

koa kalera jeisteko erabakia hartu zuen, eta aurrerakoan hiru egunekoak izango zirela eta ez bakarrekoa, Espiritu Donenaren bigarren eguneko, ordura arte bezela.

Elosuarrak beren feria mantendu nahi zuten eta danboliñarekin lagundutako dantzaldiak izatea. Hala ere, 1.749 garren urtean Udaletxeak erabaki batzuek hartu zituen, Rokaberdeko Markesak, Alonso Moiu alkateak, eta Etxeberriatar Domingo Iñazio iskribauak izenpetuak, eta Elosuko apaiza zan Ke-rejazutar Jazintori eskatzen zioten agindu horiek mezatan irakurtzeko, jende guztiak jakin zitzan.

*Imanol Sorondo*



*elosuarrek diotenez, orain dagoen kantinen inguruan, San Adrian izeneko ermita omen zegoen*

**LXUKUN**


**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

*Tximak*

*Ileapaindegia*

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51



bergarar unibertsalarekin Argentinan

# Justo Garate:

**"Bergara Kultur Hiri  
izendatu beharko  
lukete"**

Justo Garate Urbiola mende honen hasieran munduratu zuten bergarar horietako bat dugu. Beste batzuk ez bezala, gogoz ala beharrez, ibiltari munduan zehar; Alemania, Ingalterra eta Frantzia ezagutu zituen medikuntza ikasketak osatzen zituen bitartean. Azkenik, 1.936. urtean Argentinara jo zuen bertako Mendoza hiri ederrean kokatu zelarik. Bere etxean izan gara elkarrizketatxo bat egiteko asmoz, eta bere emazte Itziar eta seme-alabek (Amaia, Nerea eta Xabier) inguraturik aurkitu dugu 1.991.go Santo Tomas egunez.

**B**ere gaztaroan ausarta eta kementsua izan den gizonaren irudia gordetzen du, eta hasiera batetan elkarrizketa bat lortzea bazen gure asmoa, atzera egin behar izan dugu aukerarik ez digulako eman. Etengabeko bakar-hizketan murgiltzen den gizona dugu eta Bergarako herriaz zenbait galdera egin ondoren, bere zaletasun haundienetarikoa duen hizkuntza eta etimologiaren munduan murgildu da.

Politika, hirigintza, Argentina dira, bere so-

lasaldian ikutzen dituen beste batzuk, baina tarteke Bergarara itzultzen du bere gogoia hemengo gaiez jarduteko.

## **Euskarari buruz**

Oso haserre agertzen da bere jaiotetxeko sarrerako oroitarran abuztua hitza agertzen delako.

- Ni dagonilan jaio nintzen eta ez abuztuan. Abuztua hitza ikaragarri zatarra da. Euskeraz bi edo hiru hitz ditugu hil bakoitzarentzat eta er-



derazkoa aukeratu dute. Harrituta geratu nintzen. Nork gogoratzen du gaur bagila edo barandaila bezalako hitzik? Penagarria da.

- Behin ildo honetatik abiatuz gero, zorrotz

kritikatzen ditu bere ustez euskarari egin zaizkion erasoak eta Arantzazu eta Bergaran Euskaltzaindiak eginiko batzarrak. Erabat kaltegarriak izan omen dira bere ustez:

- Euskaltzaindiak kirtenkeria haundiak egin ditu; «y» eta «ñ» kendu eta ezertarako balio ez duen «h» madarikatu hori jarri. Mundu guztian baztertzen ari diren ertaroko gauza fonetiko galdu hori gurean orain sartu. Kirtenkeria izugarria. Mitxelena eroa zen, ba al dakizue? Bera, Krutwig,

**Euskaltzaindiak  
kirtenkeria  
haundiak egin  
ditu: "y" eta "ñ"  
kendu eta "h"  
madarikatua  
jarri**

## **Etxenagusia**

**Berezitasunak:**  
kremazko kafea eta  
paella Valentziako erara

Bidekurutzeta 9, Tfnoa: 76 20 08



## **LASA JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

ETAko sortzaile izan zena; Txillardegia, gaixoa hau ere; eta familia eskizofrenikoa zuen beste poeta bat; lau hauek, ETA filologiko bat sortu zuten. Bi letra horiek kendu eta «h» sartu. Ikaragarriko kaltea egin diote euskarari.

**Ziutate Kultural**

- Gogorkeria hau erabat leuntzen da bere sorterriari buruz hitz egiten duenean; Bergara Ziutate Kultural izendatu beharko lukete bere ustez eta ahalegin guztiak egiten ari da:

- Madrilen Euskal Herriko Lagunen Batzarra sortu genuen; hamar lagunek osatutako taldea, Caro Baroja, García de Diego eta Areilza besteak beste.

Eskutitz bat bidali diot taldeari Gobernuari eska diezaioten Bergara Kultur Hiri izenda dezala. Ba al dakizue zergatik? Lehen aldiz Wolfram-Tugstenoa isladatu zen hiria delako, 1.783an; Samaniego eta Foronda bezalako idazleak izan dituelako; Proust kimi-kari frantsesak bertan irakatsi zuelako eta Humboldt minerologo ospetsuak ere bertan ihardun duelako. Maila hau izan duen hiri batek nahitaez behar du Kultur Hiria maila. Pentsa, 1.919.ean Salvador de



*Justo Garate, bere familiarekin, Mendozako etxean. Argazkian, ezkerretik eskumara: Nerea eta Amaia (Justoren alabak), Justo, Itziar emaztea eta Xabier semea.*

Madariaga ingelesa erakutsi nahian ari zen Madrilen, eta Bergaran, 1.780.ean erakusten zuten apaiz irlandar batek.

**Politika kontuak**

- Bere gaztaroan politikako bideak urratu zituen arren ez du gaur oso gustoko mundu hori edo behar bada, hobe esanda, ez ditu hain gogoko mundu horretan ari diren zenbait pertsona; «Gizo-

na, egiten duenetik nreurtu behar da, ez esaten duenetik» zioen 1.987.ean DEI Ari emandako elkarriketa batetan. «Comunión Nacionalista»ko kide izan ondoren, ANV-EAEko sortzaileetariko bat izan zen.

Luze hitz egin du bere sasoiko politikoez, baina gutxi jo ditu bere gustokotzat.

- «*Se dice sin haberlo podido demostrar que Sabino Arana pudo haberse equivocado*» esaten zuten

orduko aberrianoak. Beren ustez Sabino Aranak ezin zuen hutsik egin baina esango dizuet nik zergatik; euren irakaslea gogoratuz gero eurek ere goi maila bat lor zezaketela uste zutelako. Orain berriz, lehen hutsik egiten ez zuen gizonaren abertsaletasuna zaharkitua dagoela diosku EAJko buru den Arzallus jaunak.

Nik Jemein eta Gallastegi ezagutu nituen. Jemein ez zen maila haundiko gizona eta Gallastegi berriz, sinpatikoa zen baina Mexikon zeukan liburutegiak ez zuen gehiegi balio. Jemein tontoa zen. Bi liburu argitaratu zituen, bata

***Jemein tontoa zen eta Gallastegi berriz, sinpatikoa zen baina bere liburutegiak ez zuen asko balio***

**Garnish**

**Bitxitegia**

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

**ZUNBELTZ**

**Kafetegia**

S. Arrieta Enparantza  
BERGARA

**LAZKANO**

**OINETAKOAK**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

1.933a inguruan español eta gaztelarren aurka gauza izugarriak esanez, gero eurengana Madrilerara joateko Estatuto eske. Politikan praktikoa izan behar da.

Argitaratu zuen beste liburua, «Solo JEL basta» (JEL bakarrik nahikoa da). Orain lau alderdi abertzale ditugu. Guzti hau dela eta, ez dut sekula bat egin aberrianoekin. Buruz, ETAkoak bezalakoak ziren.

- Talde armatu honi buruz ere ez dauka eritzi onik:

- Euskaldun guztiok lotsarazten gaituzte horiek.

- Etengabe jarraitzen du mintzatzen eta Alfonsin Argentinako Lehendakari ohia, Ongania jenerala edo Jorge Luis Borges idazlea besteak beste ditugu solasgai, berriro ere bere jaioterria gogora datorkion arte.

### Bergara bihotzean

- Eta Udaletxe ondoan zegoen Raimonen etxea bota al dute plaza biak bat eginez? Hori gustokoa dut. Joan al daiteke zuzen pelotalekutik Torrekuaraino? bota al dute Mendibilen lantegia?

Bi gauza horiek nahi nituen nik nere herriarentzat; bi enparantzak bat egitea eta pelotalekutik Torrekuarainoko bidea zuzentzea. Hori

egiten ari direla egia bada, emaiozkiozue zorionak nere partez alkate jaunari.

- Justoren aurpegia pixkat goibeltzen zaigu obra berri hauek ikusteko itzaropenik ez duela aitortzean:

- Guk ezin izango dugu berriro gure herrira joan osasunez makal gaudelako. Nere emazteak markapasosa jarrita dauka eta nik, berriz, tentsio arazo haundiak ditut. Egunero hiru bat aldiz hartzen didate tentsioa.

- Guzti hau bizi eta mundua uzteko aukeratu duen herri honi zor dion maitasuna ere agerikoa dela uzten duen eran esaten du...



## Ezingo dugu berriro gure herrira joan, emaztea markapasosarekin dabil eta ni tentsio arazoekin

### Gaztetako oroitzapenak

Eguna iluntzen hasita dago Mendozako hirian baina Justo Garateren etxean ez dirudi presa haundiko arratsaldea denik. Gurekin eta Justoren senideekin batera, Argentinan jaiotako *donostiar* bat dago, Patxi Gimón. Liburu bat mereziko lukeen gizona, Mendozatik igarotzen diren euskaldun guztiak laguntzeko prest egoten baita.

Luze jardun ondoren, ueste gabe bederatzia eta laurden dira eta egonalditxo honen bukaera iristen ari zaigularik, Bergarako errekan, Zubietako zubiaren (Usondon) inguruan zegoen isla txiki bati buruz galdetzen digu. Umetan zopak ibiltzen omen ziren jolasean inguru horietan. Isla horren izenik ez du gogoan eta jakin nahiko luke. Guk horren berririk ez dakigunez Bergarara iristean galdetuko dugula agintzen diogu. Beraz, irakurleren batek izen hori gogoan izango balu eskertuko genioke *Berrigara* astekaria jakinean jarriko balu, honen berri Justo Garateri helarazi diezaiozun.

Azkenik, familiako argazkiak atera ondoren, bihotz-bihotzez eskeretzen digu egin diogun bisitaldia eta bere eza-gunentzat gorantziak bidaliz (Jose Antonio Zabala, Josu Oregi, Asuntxi Idarreta, Antonio Urzelai...) agurtzen dugu bizpahiru orduz etxeko izan gaituen familia hau.

Testua eta argazkiak:  
Iñazio Arregi,  
Damaso Gallastegi

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**GESTORIA**  
**EGUREN**

M. Pilar Eguren Diez  
Kolejlatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behe,  
Tfnoa: 76 21 65 - 76 24 45


**REMENTERIA**  
**Altzariak**

Egongelak / logelak  
Aukera guztiak / enkarguak  
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

# Mujika

## Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91



**ETXE-  
-AUNDI**

Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI


**FS**  
oto sistema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Zein telebista kate duzu gustokoen?



Iñigo Herreros  
16 urte, ikaslea

Gehien gustatzen zaidana Antena 3 da, pelikula onenak ematen dituelako.




Luziana Larbide  
54 urte, langilea

ETBko lehen katea da gehien ikusten dudana, kirolak oso ondo ematen dituelako.



Antonia Gutierrez  
24 urte, langilea

Telebista aurrean jartzen naizenean ETB-2 ikustea guztatzen zait batipat, programazio ona duelako.



Alex Gardoki  
23 urte, ikaslea

Neri TVE-2 gustatzen zait gehien, kirol asko ematen duelako.

## TABERNA ZAHARRA

### Jatetxea

Bazkariak  
eta  
afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

## LAGUN ARO

### ASEGURUAK

Agentea:  
RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6  
Tfnoa: 76 23 30  
Faxa: 76 41 54  
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA  
BERGARAN




## VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -  
ISPILUAK-KRISTAL  
BISELATUZKO  
ATEAK - etab.

Azal eiguazu zure ideia  
VID-ARTEk  
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA  
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54



**Berriak**

Arantazuko egutegian agertzen denez, urtarrilaren hamabostaldian eguna minutu bat lehenago zabalitzen du eta arratsaldean beste bat gehiago luzatzen da. Augusto Monterres guatemaltarrak "El dinosaurio" izeneko lerro bateko ipuina idatzi zuen: "Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí".

Iñigo Igartuak Felipe González eta Narcis Serraren zorion telegramak jaso ditu Espainiako ziklo-kross txapelketa irabazi ondoren. Ameriketako urtean dabilen "Pinta" karabelako marinelek errebolta antolatu dute ontziko komandantearen "pasaden" aurka protesta egiteko. Colón-ek burua jasoko balu. Xabier Euskitzek kritika zorrotza jaurti dio Jon Sarasuari, atxabaltarrak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean bertso txarra enpainoz bota zuelako. Garcia valverde ministro ohiak txaloak entzun ditu dimisioa aurkeztu zuelako. Ohitura faltak zer egiten duen... Poloniar batek bere ukabila bekokira eraman eta mugitzen hasten bada, zoratuta zaudela esaten ari da. Sevillako Expoaren sarrerak badauzkate salneurriak: 5 urterartekoak debalde; 5etik 14ra bitartekoak eta 65 baino gehiago dituztenak, 1.500 pezeta; eta osterantzekoak, 4.000 pezeta. Ganster zuri batek martxan jarritako Cotton Club-a beltzen eskuetan dago gaur egun.

Bere eskumaren zartadak nabarmenduko direlaokan eman du izena manomanistan Joxe Mari Zezeagak. Bakoitzaren informazio aukera da, beharbada nireak eta ez beste inorenak diren notiziak. Egun gutxi barru desegingo zaizkidan berriak.

**Joseba Lezeta**



**Informatikaren esklabu**

Orain arte bakarrik etxeko kreditu, lantegiko jabe eta Corcuerearen enplegatu azkerrenen esklabu ginela uste zutenak ederki astindu ditu azken egunotan irakurri-entzun-ikusi ahal izan dugun berria, hots Madrilen harrapatu dituzten kinki-informatikoez zeuzkaten artxibo ikaragarriak.

Epaitegietako ohizko iturriek aditzera eman dutez espainiar estatuko 21 milioi hiritar zeuden-geunden gaizkile zibernetiko hauen ordenadore azkar eta futuristetan. Norberak ezagutzen ez dituen datuak ere ba omen zeuzkaten izarretako gudarako ongi prestaturik zeuden mafiosook.

Azkenik bost kinkiak aske utzi dituztela entzun ahal izan dut irratan.

Ez dut nik, Jainkoak salba nazala!, inorentzako espetxe zigorrik eskatuko ezta atxiloketarik ere, azken finean Madrilen harrapatutako jenio informatiko kaskajo horiek gure datu pribatuok *mailing* eta publizitate kontuaz arduratzen diren entresei saltzeko besterik ez zituzten behar. Baina erreflexioak gaizkile hauek barkatzera bagaramatza, nonbait benetako errudunak aurkitzera behartzen ere gaitu. Nork emango dizkio lasaitasunez bere daturik pertsonalenak, ekonomikoak, sentimentalak, zergaz eta mespretxuz itotzen gaituen Administrazio honi? Gruyere gazta bat baino zulo gehiago dituen Administrazioko alor konfidentzial honek barre eta algarra besterik ez lieke eragingo Zaire edo Kenyako hiritar apalenei ere.

**Martin Garitano**

**ANDVZY**

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

Azulejo erakusketa • Onduline  
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan  
C-1 B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 (X) 58 BERGARA



**Erakusketa**  
**Angell. Perales**

urtarrilaren 7tik 30era

**NAHIKARI**

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71

## Zeuk galde



**48** Ba al dago daturik kotxeko zinturoiak eta kaskoak istripuetan duten eraginaz?

Joan zen urtean argitaratu zuen Trafiko Zuzendaritzak trafiko-istripuei buruzko estatistikak jasotzen dituen liburua. Bertan agertzen denez, istripuz hildakoen % 77,32ak ez zeraman gerriko edo kaskorik eta % 22,77ak bai. Larri zauritutakoen artean, berriz, % 60a babesgarri horiek gabe zihoan eta % 40a babesgarriekin. Eta, azkenik, zauri arinak izan zituztenetan % 51,42a zen gerrikoa edo kaskoa zeramana eta % 48,58a gabe zihoana. Datuon arabera, beraz, garbi ikusten da hiltzeko arriskua, behintzat, 3,39 bider haundiagoa dela kasko edo gerriko gabe joanda, horiek eramanda baino.

## □ Gero eta maiteminduago

Ostiralean, hilak 17, Burgoseko Katedralean ezkondu zirela 50 urte betetzen diren egunean **Manoli Varona** eta **Antonio Fernandezek** urrezko eztaiak ospatu dituzte bere senitartekoekin batera. Ordubartetan San Antonioko elizan meza entzun eta, ondoren, Zumelaga jatetxean izan dute bazkaria. Besteak beste, han izan dira, nola ez, bere bi semeak eta lau bilobak. San Antonion izan dira bi ospakizunak, azken batean, bertan bizi baitira izatez burgostarra den Manoli eta Antonio bergararra. Antoniok gainera harro gogorarazten du jaio zeneko ohe berean lo egiten jarraitzen duela.... ZORIONAK!



## □ Motorzaleak

Pasa den abenduaren 29an Neguko Irteera Klasikoa egin zuten argazkian agertzen diren **Bergarako motorzaleek**. Goizean goiz tropelean irten eta Gipuzkoako errepideetan *torrontegirenak* egitera joan zitzaizkigun. Aian egin zuten hamarretakoaren ondoren, kostatik etxera bueltan, eguzkiak berotuta edo, lehiak ere izan ziren herrira helmugaratzeko orduan. Irabazlearen berririk izan ez dugun arren, jakin badakigu dagoeneko beste irteeraren bat prestatzen hasi direla **Zapelaitz Motozaleen taldekoak** Munduko Txapelketako karreraren bat ikustera joateko... eta ez pentsa autobusik antolatuko dutenik!.

*Kabutzia*

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49



### □ Txibisto husten

Bergarako dantzalekuari agur esan beharko diogu bai, hasi dira jadanik berau desmontatzeko lanak eta. Zoritxarrez, abenduko zenbakian aurreratu genizuen bezala, Txibiston ez da gehiago kontzerturik izango eta abeslari eta musikariaren ahots eta instrumentuen doinu goxoen ordez, udatik aurrera, Bergarako Izpi Kaldereriaren zarata hotzak izango dira. Bien bitartean, Txibistokoek salgai jarri dituzten foku, musika tresna etab.en artean agian txolloren bat aurkitu ahal izango duzue...




## Zertan dihardute ba?

AGUSTIN BADIOLA



Bergarako Aritzeta Abesbatzaren Zuzendaritza Batzordean emandako azken aldaketan ondorioz, 31 urteko plaentziar hau Batzordeko lehendakaria izango dugu datozen 2 urteotan.

JON ETXEZARRETA



Bere ikasketak Donostiako Seminarioan burutu zituen 47 urteko apaiz ordiziar hau San Prudentzioko elizako arduradun berria dugu aste honetatik urrira bitartean.

# MUGICA

## Burdindegia

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

## ezpeleta etxea

Harizko eta kotoizko goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

## Izkirimiriak

Angiozarko mutikoak pelotari trebeak izan oi dira; euren elizpe ortan beintzat paregabeak. Ez bekizu bururatu ere egin eurekin an neurtzea, bertako urbedeinkatu-ontzi, aurreko ormak bekaldean daukan jarmalla ta alboan lur-zolan dagon langa-tartea "utz" edo "falta" aurrez jarri ezik, bestela an zoraturko zaituzte. Obe dezu beste nunai lauren aurka jokatzea... Irudimenez ere bixi-bixiak dituzu eta euskeraz itz egiten egoki-egokiak. Ikusi Angiozarko mutiko batek jalgitako esakun biribilla.

Bageunden bein kale barreneko orman preskura hartzen eta gutako batek bialtzen du mutiko bat estankora ziarro-sorta billa:

- *Aguro etorri e?...* agintzen dio.

"*Bai*" erantzunaz abiatzen da mutikoa borondaterik onenaz, baiña estankora bitarte elizpea egon eta emen bere lagun bat pelotan; sartu da irulau pelotakada joteko

asmoz, baiña batere uste gabe berotu; aginduaz aaztu ta amabira partidua. Amarrera berdindu ta sei-berri; laura berriz berdindu ta lau-berri ta ola orduerdi ta gehiago.

Bukatu partidua, jantzi brusa ta abarketak eta aaztutako aginduaz gogoraturik badoa mutiltxoa estankora eta an dator goitik beerako kale-malla zabalak ondo neurritako iaiziz (saltoz) arin igaroaz, atxintxikalaria baiña egalaria iduriago. Bere ziarro-sorta artu, mutikoari eskupeko bat eman eta gure lagun orrek badiotsa asare-antxean;

- *Mutil kosta jak etortia!... Aguro etorteko esan ez deuat ba?...*

Eta irriparre gaiztotxo bixi-bixiz iardesten dio mutikoak euskal-antoloji baterako bezelako erantzuer biribil onetxezaz:

- *Etorri aguro etorri naiz..., jaoan egin naiz sosisguztxo ezel!...*

**Txomin Amasorrain**

## Antzinako kontuak

### Bergarako bide nagusiak

Bide nagusiak dira hiriak lotzen dituztenak.

Bergarak, honako hiri hauetara izan zituen bideak (edo bide batzuk behintzat) dokumentatuak daude: Soraluze eta Elgoibarrera (1.575, 1.596), Azkoitira eta Azpeitira (1.577), Arrasatera (1.578, 1.592), Elgetara (1.591, 1.592, 1.596), Urretxura (1.596, 1.599, azken hau Antzuolarako bidea), eta Nafarroako bidezaharra (1.598).

Bide hauetatik, Arrasaten hasi eta Bergara, Soraluze eta Elgoibarrera zehar kostaldera zihoana Gasteiz eta Gipuzkoako kostaldea, Deba ibarrean zehar lotzen zuen errege bidearen zatia zen.

Gehienetan bide hauek "Kaltzadak" ziren, burdi bi errete gurutzatzeko moduko zabalera zuten eta bere garrantzia zela eta, konponketak gurutzatzen zituzten lurretako udalek

egin behar zituzten edo, azken mailan, Herrialdeko Batzar Nagusiek.

Gasteizerako errege bide hau, gaurko errepi-dearen (C-6213) leku beretik zihoan, hau da, Le inzko Gatzaga hiria eta izen bereko mendatean zehar.

Bidea, Arrasatetik urten eta Ozaetako zubia eta San Antonio auzoa zeharkatuz Bidekurutzetara eta Plazara zetorren, gero Barrenkale eta Zubietatik zehar Soraluzerantza joateko, Deba Ibaiaren eskumaldea harturik.

Hiria Bizkaia eta Nafarroarekin ere lotuta zegoen, Bizkaiarekin Elgetatik eta Nafarroarekin Urretxutik ("*Camino de Anzuola a Villarreal*"). Antzuolako bide hau izango da, XVIII. mendean "*Camino Real de Coches Madrid-Irun*".

**Amaia Basterretxea**

**LIZAR**  
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**Zubiberri**


*Sagardotegia*

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

**ERROTA - GAIN**

**Aluminioak**



- **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**

- **Galdaragintza orokorrean**


Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40  
**BERGARA**



# Jon Lazkano

## Bi hilabete paretan zintzilik

**Jon Lazkano eskaladore bergararrak Patagonian bi hilabete eman eta bide berri bat zabaldu du**



tzen du han, eta zero azpiko temperaturetan ibili gara..., kontuak atera!

Tamayo eta nirekin batera, Estatu Batuetako bi eta Argentinako beste lagun bat ibili dira. Boston artean ireki dugu bide berria.

**- Bi euskaldun, bi Estatu Batuetako eta argentinarrak. Ados jarri zineten bideari izena jartzerakoan?**

- Bai, «Ballena de los Vientos» izenarekin bataiatu genuen. Eskalatzen erabilitako berrehun metrotako soka oso astuna zenez, Ballena deitzen genion, eta Patagoniako haize indartsuaren pean ibili garenez..., hortik «Haizeetako Balea».

**- Zenbat kosta zaizue espedizioa?**

- Hirurehun mila pezeta inguru, eta geure poltsikotik ordaindu dugu. Orain, udaberri partera arte hitzaldiak eta

diapositiba emanaldiak egingo ditugu. Aldizkari espezializatuei, bestalde, han bizitakoak kontaktuko dituen artikulua salduko dizkiegu. Jasotakoarekin gastuei aurre egin beharko diegu.

**- Eta egitasmo berririk eskuartean?**

- Udaberri partean India aldera, Himalayara, joateko tan naiz. Ikusi beharko xoxak nonbaitetik ateratzeko biderik dagoen! Instituzio eta komunikabideetatik eskalatzen ibiltzeko dirurik jasotzea oso zaila da, udaletxetik behar bada...

Ordura arte ez da geldi geratuko. Batean Atxartera, bestean Etxaurira, Pirineotara edo eta Alpeetara..., etxean ia ez dute ikusi ere egiten. 22 urte ditu eta munduko paretan garrantzitsuenetan ibilia da honezkerok: Patagonian, Himalayan, Yosemite...

## Iñigo Igartua Espainiako Txapelkun

Iñigo Igartuak afizionatu mailako Espainiako Ziklo-Kross Txapelketa lehen aldiz irabazi zuen joan den igandean Burrianan (Valentzia) jokaturako lasterketan.

Denboraldi osoan erakutsi duen moduan, estatuan etsairik ez duela argi utzi zuen bergararrak eta profesional zein afizionatuen aurretik helmugaratu zen.

Aurten lortu duen zazpigarren garaipena poltsikoan, otsailean Ingalaterran jokaturako Munduko Ziklo-Kross Txapelketa prestatzen hasi da, "sasoi onean nago eta ea mundialetarako forma mantentzen dudana", adierazi du Iñigok.



*Iñigok argi utzi du estatuan ez duela etsairik*

Chilen, Hego eta Erdiko Paine Dorreak eta Argentinan, Saint Exupery Orratza eskalatu ditu.

**- Euskal eskaladoreen lorpen berri bat?**

- Horrela da. Munduko paretan selektiboak igo ditugu. Gainera gauzak uste genuen moduan irten zaizkigu, ez dugu batera arazorik izan.

**- Bi hilabete etxetik kanpo, baina paretetan, zenbat?**

- Ireki dugun bide berria egiten, Erdiko Paine Dorrea eskalatzen alegia, 20 egun eman ditugu. Aurretik, aste-bete osoan Hego Dorreko bide Italianoa egin genuen.

**- Hogeit egun soketatik zintzilik, Patagoniako haize zorrotzei desafioka...**

- Haizeak beste inon baino gehiago eta gogorrago jo-

**JOSE LUIS eta MIKEL**

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17



**Merzeria - Lenzeria**

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

**ARREGI**

**Eraikuntza materialeak**

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaralta Auzoa



### *Ikastolako haurrak Don Serafinekin*

**K**anturako elkartu ote zuen Don Serafinek koadrila hau?

Ezin ba jakin! Hala bazen, badago hor eskuma aldean, bekozkoa jarri eta "Nik ez dot kantaiko" esaten duenik. Baita. "Ai, letria ahaztu jat", dioenik ere buruari hazka eginaz. Ez du ematen hauekin abesbatza haundirik moldatuko zuenik.

Beharbada, kanturako izan beharrean, irratsaioren baterako ipuinak kontatzeko elkartuko zituen. Edozein modutan ere, andra-gizon formal eta karreradunak atera dira hortik.

Hara nortzuk diren aurpegia bistara samar dutenak, ezkerretik eskumara:

Don Serafin, Ane Miren Bengoa, Amaia Madinabeitia, Ane Aranburu, Juan Luis Barrutia, Miguel Angel Elkoroberezibar, Mikel Laskurain, Pilare Mujika, Asier Madinabeitia, Joseba Moñux, Jose Luis Lazkano eta Eneko Altube.

*Estepan Plazaola.*

*Argazkia: Elena Etxaniz*

**Zure  
konfidantzako  
denda**



**Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27**

**ARRASATE**



**ETXEBIZITZA**

**Pisua salgai:** bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 764971.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.

**Pisua salgai,** Iraburu kaleko 10.ean. Deitu 763911 telefonora.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko Betatik aurrera: 764252.

**Pisua salgai** Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

**Etxebizitza salgai** San Lorentzo 25ean. Deitu: 763135

**Pisua errentan** hartuko nuke. Deitu: 760357

**Pisua salgai,** garaje eta guzti. Tfnoa: 763911.

**SALDU-EROSI**

**PENTAX ME Super,** TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun **argazki makina** salgai. METZ 20B3 flasha, funda eta poltsa ta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. Deitu: 765690 / 801538.

**CX 2.600 A ATARI** bideo-jokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. Tfnoa: 761718

**Fondoko hiru eskl** pare salgai, estadu onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoarentzat eta bestea nagusi batentzat. Tfnoa: 763269

**SS-9068 M** matrikuladun **R-14 bat salgai.** Deitu: 763612, gauze

**3 pertsonarentzako Iglu kanping-denda** berria salgai. Deitu: 763495.

**9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea** eta AKAI AP-X1 **tokadisko** erdiautomatikoa salgai. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

**PCrako joku original** eta **koplatuak** (100 inguru) salgai. Oso merkell. Deitu: 761785 (Asier).

**Ekonomika eta beheko surako** egurra zakuka salduko nuke. Deitu: 763016

**Neskentzako bizikleta** salduko nuke. **BH bolearo rosa** modeloa. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

**SPECTRUM+2** bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

**4 metrotako ADRIA Karabana** salgai. Oso'egoera eta prezio onean. Deitu: 761312 telefonora.

**3 ateko AX GT-ko baka** bat salgai. Deitu: 762481, iluntzeko 8etatik aurrera.

**LANA**

Arratsaldez lana egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zaintzen.** Deitu: 765482.

Emakumezko euskalduna behar da **haurrak** zaintzeko. Deitu: 760257 denda orduetan

Furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo nuke. Deitu: 742063.

**Hildakoak**

*Eugenio Agirre Ondarra*  
urtarrilaren 8an, 51 urte

**Jaiotakoak**

*Ohiane Rodriguez Bajo*  
abenduarien 27an  
*Ane Morillas Igartua*  
urtarrilaren 15ean

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**



**ELEKTRAGINTZA**

**Mota guztietako instalazioak**

**76 00 00 BERGARA**

# JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA



ZERAMIKA ETA SANITATE GAIK

Gaur, hilak 17, zabalduko ditugu ateak. Bertan aurkituko dituzu sukalde eta bainurako ekipamendurik konpletoenak, beharrezko osagarri guztiekin. Merkatuko firmarik onenen kalitatea eta diseinua eskaintzen dizugu.

**Bisita gaitzazu.**

Zeure beharrentzako irtenbiderik egokiena emango dizugu.

San Lorentzo Poligono Industrial, Amilaga 10 behe. Tfnoa; 76 03 30 • Faxa: 76 02 91 BERGARA